maialen.sebastian@ehu.eus

@Maialen_SdlC
@FunImmune

Esofagitis Eosinofilikoaren RNA bidezko diagnostiko ez inbaditzailerako proposamen berria

Maialen Sebastian-delaCruz[1,2], Koldo Garcia-Etxebarria[3], Luis Manuel Mendoza[1], Carol Julyssa Cobian[3], Sonsoles Tamarit[4], Jose Ramon Bilbao[1,2,5], Alfredo José Lucendo[4], Luis Bujanda[3], Ainara Castellanos-Rubio[1,2,5,6]

[1] Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalia Fisiologia Departamentua, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa; [2] Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua, Barakaldo; [3] Gastroenterologia Departamentua, Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua, CIBERehd, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia; [4] Gastroenterologia Departamentua , Tomellosoko Ospitale Nagusia, CIBERehd, La Princesa Osasun Ikerketa Institutua, Tomelloso (Ciudad Real); [5] CIBERDEM, Carlos III Osasun Institutua, Madril; [6] IKERBASQUE, Zientziarako Euskal Fundazioa, Bilbo

SARRERA:

- Esofagitis eosinofilikoa gaixotasun inflamatorio kronikoa da eta eosinofiloen infiltrazioa esofagoko mukosan eta esofagoaren disfuntzioa dira ezaugarri nagusiak. Diagnostikorako erabiltzen diren irizpideak horiek izanik, endoskopia egitea beharrezkoa da, esofagoko biopsia bat lortzeko eta ezaugarriak konfirmatu ahal izateko.
- Ahoa digestio aparatuko lehen atala izanik, ahoko mukosak digestio aparatuan beherago dauden mukosen antza izan dezakeela hipotetizatu da. Gainera, ahoak eta esofagoak epitelio ezkatatsuaren patologia bera dutela eta biomarkatzaile gisa erabili ahal diren proteina eta RNA molekula ugari daudela iradoki da.
- Gaixotasunaren berezko gene-adierazpen balioetan oinarritutako biomarkatzaileak tresna baliagarriak dira gaixotasuna aurreikusteko eta ezagunak dira EoEn ezberdin adierazten diren geneak. Baina, orain arte, analisi horiek EoE gaixoen biopsia laginetan egin izan dira, endoskopia prozedura beharrezkoa izanik horietan ere.
- Beraz, ikerketa honen helburua geneen adierazpen mailan oinarritzen den EoEren diagnostikorako metodo ez inbaditzailea proposatzea da, ahoko mukosa laginak erabiliz.

EMAITZAK:





1. Irudia. A) Esofagoko eta B) ebaluazio-kohorteko aho-mukosako mRNA adierazpen balio erlatiboen bero-mapa. Lerroetan geneak eta zutabeetan giza laginak irudikatu dira. Karratutxo bakoitzean, ilarako genearen adierazpen erlatiboa ikus daiteke. Kolore urdinak eta gorriak adierazpen-maila baxuago eta altuagoak adierazten dituzte, hurrenez hurren. D) Konfirmazio-kohorteko *HIPK3* eta *PRR15L* geneen adierazpen balio erlatiboak. Adierapen balioak *GAPDH* gene etxezainarekiko erlatibizatu ziren. Esangura estatistikoa Student t testarekin ebatzi zen, *p<0,05 eta **p<0,01 esan nahi dutelarik. E) *HIPK3* eta *PRR15L* geneen bakarkako eta F) haien konbinazioaren ROC kurbak. ROC kurbaren puntu bakoitza (zirkulu beltzak) diagnostiko probaren ebaki puntu posible bati dagokio, eta dagokion sentikortasuna (Y ardatza) eta espezifikotasuna (X ardatza) jakinarazten dizkigu. AUC: Kurbaren azpiko area. G) *HIPK3* eta *PRR15L* gene konbinazioaren diagnostikorako iragarpen ahalmena. Gris ilunez EoE gaixoak (EoE) eta zuriz kontrolak (Ktrl) adierazi dira.

ONDORIOAK:

- *HIPK3* eta *PRR15L* geneen mRNA adierazpen balioetan oinarrituta garatu dugun irargapen-ereduak %90eko sentikortasuna eta %70eko espezifikotasuna du, eta modelo honetaz baliatuz EoE gaixo aktiboak eta kontrolak bereizteko gai izan gara, %80ko asmatze tasarekin.
- Emaitzak kontuan izanik, ahoko mukosetako mRNA adierazpen balioak EoEren diagnostiko ez inbaditzailerako biomarkatzaile egokiak izan daitezkeela uste dugu.